

MAITE ZULAIKA.

Luis M. Mujikaren poetika (I) eta (II).

Hiria argitaletxea. Donostia, 2004. 498 orrialde, bi aleak.

Pello OTXOTEKO

Poetika liburua dugu honako hau. Maite Zulaikak txukun apailatu-tako lan honetan Luis Mari Mujikaren hogeituro urteko bide poetikoa aztertu du, konkretuki 1963ko *Bide-giroak* eta 1983ko *Aire neurtuak* poesi liburuen artean dagoen epea. Maite Zulaikak lan bikaina eta sakona egin du Luis Mari Mujikaren obra poetikoa aztertzerakoan. Bi liburu hauek borobilak dira, taxuz eta tentuz eginikoak. Zehatzak bere azterketa egiteko orduan, eta xamurrak Mujikaren poesiaz aritzean. Maisuki uztartzen ditu bi ikuspegi hauek, eta benetan, oso eskertzeokoak dira irakurle garen aldetik.

Aspaldiko poeta dugu Luis Mari Mujika. Denbora luzea darama poesia lantzen eta jorratzen. Korronte ezberdin askoren partaide eta eragina jaso du: sinbolismoa, existentzialismoa, surrealismoa, ... Denetatik edan du eta bere poesia hauek guztietan aberastu da.

Louis Aragoni buruz esan zuten korronte eta gertakizun asko gainditu zituela, hala nola, surrealismoa, Iraultzaren ametsa eta Stalin-en iratzarpena, Breton-en eragina, esperantza, Éluard, Maiakovski, ... Azkenean ispilua baino ez zeukan bidaide, astiro-astiro eroritako malkoa baizik ez den ispilu grisa. Eta ispilu honetan bizirik gelditu dena begiratzen da, eta ez du bere burua ikusten, soilik

*"hegazti ankerrek jandako
errauspena,
arranoen eraginez
zekalezko zelai suntsitua."*

Luis Mari Mujikari buruz antzekoa esan genezake, hots, belaunaldi eta korronte askotatik bizirik dirauen azkena dela. Baina Aragon berriz ere lerrootara ekarriz:

*“Reviens de nulle part
N’importe où je t’attends.”*

Edonondik etorrira ere prest gaude bere zain geratzeko. Eta halaxe egin dugu, bereziki Maite Zulaikak bere lanean ondotxo adierazten duen modura.

Luis Mari Mujikaren lehen poetika Juan Mari Lekuonaren eta Mikel Lasaren sinbolismotik hurbil ezar zitekeen, baina bi hauek baino bide surrealistagoak jorratu zituen. Egilearen iritziz, idazkeraren sinbolismotik, lizardismoari uko egin eta gero, beste estilo ez-zehatz batera egin zuen jauzi Mujikak. Eta puntu hauetara iristeko Maite Zulaikak bere poesiaren disezio sakona egiten digu. Azterketa lan honek geldione bitxiak egiten ditu sinestesiak, antitesiak, bisemiak, errepikak, konparaketak, hitz-jokoak, eta abar aipatzen dituenean. Baina bereziki begirada arretatsua jartzen du metaforak aztertzerakoan.

Metaforei eskainitako atala liburu bakoitzaren azterketa egiterakoan garrantzitsuena eta joriena da. Metaforismoak ugariak dira, mota askotakoak, iruditeria oso aberatsa aurkezten digu, adibidez, irudi somatikoak, landarediari erreferentzia egiten diotenak, faunari loturiko irudiak, sentusualak, erotikoak, isurki eta metalez osatutakoak, e.a. Musikako irudiak, eta musikari lotutakoak ere sarri askotan agertuko zaizkigu, beste batzutan kromatikoak, hitz gutxitan, etengabeko mosaiko anitza eskainiko digu. Eta beti ere surrealismoaren kutsu nabari bezain azpimarragarriarekin, izan ere, iruditeria sakon eta ugari honetan, metafora surrealisten indarra berebizikoa baita. Badirudi Breton-en esaldi hura berea egiten duela: *“Erokeriari diogun beldurrak ez digu irudimenaren bandera masta erdian jartze-
ra derrigortu behar.”*

Uneoro oso presente azaltzen da surrealismoa Luis Mari Mujikaren poesian, eta era berean, bere giroak eta atmosfera inguratzaileak Federico García Lorca eta Miguel Hernández-en eraginak dituzte. Limurtzailea da oso, eta lurrin gozo eta xuabea baillitza dastatzera iritsiko gara.

Aipatu beharreko beste berezitasun bat, naturarekiko dauden harremanak eta erreferentziak dira. Tarteka-marteka kontenplazioa-

ko abaguneak lortzen ditu, lerroen segidan paisaiak marraztuz. Hauekin loturik, nabarmenki suma daiteke Juan Mari Lekuonaren eragina bere poesiaren pasarte zenbaitetan. Juan Mari Lekuonaren kasuan bezalaxe, bere garaiko filosofoen eragina topatzen dugu, esate baterako Teilhard de Chardin, Bernanos, Unamuno, e.a. Konkretuki teilhardismoaren eraginari atal batzuk eskaintzen dizkio Maite Zulaika egileak. Garbi dago poetak kasu honetan garaiko teologia-mota bat hausnartzen eta gauzatzen duela. Erakuspen hori aurreneko bi liburuen ardatzetako bat da. Eta erakuspen hau naturaren kontenplazioarekin eta edertasunaren sentimendu ohartuarekin uztartzen eta bateratzen ahalegintzen da. Naturaren aurrean poetak harridura estetikoa eta barne zirrara sentitzen ditu, izan ere poesia, azken finean, gizakiak inguruko izakiez *harritzeko* duen ahalbide animikoa baino ez baita. Harridura honek naturan du gailurra, eta hemen dago teilhardismoa eta edertasuna bitarteko harridura honen arteko uztartze-gakoa. Jakina, Teilhard de Chardin-en teologiaren muinean materiaren berronespen kristozentrikoa agertzen da, hain zuzen ere.

Amaitzeko, eta laburbilduz, azterketa sakona, taxuz egina, benetan lan bikaina eta laudagarria, eta era berean, atal bakoitzaren trataera ezberdinetan, maitekiro xamurtasuna eta idazkera amultsua nabari dira lerro gehienetan. Benetan, oso gomendagarria Luis Mari Mujikaren poesian murgildu nahi duen ororentzat.